

ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA. Hotelak izan ezik. 2024ko uztaila

Uztailean % 2,5 egin dute gora sarrerek Euskal AEko landa-ostatuetan eta % 9,6 apartamentu turistikoetan

Aterpetxe turistikoetan, bestalde, sarreren gehikuntza % 18,6koa izan da

Eustaten datuen arabera, **2024ko uztailean** Euskal AEko **landa-ostatu**etan sarrerek aurreko urteko hil berarekin alderatuta % 2,5 handitu dira eta ostatu-gauak % 0,2. Uztailean sarrerek 24.041 izan dira eta 73.311 ostatu-gau erregistratu dira.

Euskal AEko landa-ostatu

	Sarrerek		Gaualdiak		Batez-besteko egonaldia		Betetze-mailak (%)			
							plazen arabera		gelaka	
	2024/07	m/m-12 (%)	2024/07	m/m-12 (%)	2024/07	2023/07	2024/07	p.p. *	2024/07	p.p. *
EUSKAL AE	24.041	2,5	73.311	0,2	3,05	3,12	50,7	0,6	56,0	1,3
Estatukoak	16.439	0,4	52.039	-0,3	3,17	3,19	-	-	-	-
Atzeritarrak	7.602	7,2	21.272	1,4	2,80	2,96	-	-	-	-
Araba/Álava	4.011	16,7	11.049	31,8	2,75	2,44	32,4	8,2	38,9	10,2
Estatukoak	2.950	7,1	8.357	25,2	2,83	2,42	-	-	-	-
Atzeritarrak	1.061	55,8	2.692	57,4	2,54	2,51	-	-	-	-
Bizkaia	7.649	-4,8	21.697	-8,4	2,84	2,95	52,4	-1,5	57,3	0,0
Estatukoak	5.162	-10,4	15.209	-10,2	2,95	2,94	-	-	-	-
Atzeritarrak	2.487	9,6	6.488	-3,9	2,61	2,97	-	-	-	-
Gipuzkoa	12.381	3,2	40.565	-1,3	3,28	3,42	58,8	-2,1	63,4	-2,9
Estatukoak	8.327	6,0	28.473	-0,4	3,42	3,64	-	-	-	-
Atzeritarrak	4.054	-2,1	12.092	-3,3	2,98	3,02	-	-	-	-

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajeazko puntuko aldea

M/m12 Behatutako azken hilabeteen izandako urte arteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta (m-12)

Data 2024ko Abuztuaren 22a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

Aurreko urteko uztailarekin alderatuta % 7,2 handitu ondoren, atzeritar jatorrikoen sarrerek Euskal AEko landa-ostatu

Lurralde historikoen arabera, sarrerak % 16,7 igo dira Araban eta % 3,2 Gipuzkoan; Bizkaian, berriz, % 4,8 jaitsi dira. Ostatu-gauen kasuan, Gipuzkoan % 1,3 jaitsi dira, eta Bizkaian % 8,4; Araban, berriz, % 31,8 igo dira.

Euskal AEn mota horretako establezimenduetan batez besteko egonaldia 3,05 egunekoa izan da uztailan, 2023ko hil berean izandako 3,12 eguneko batez besteko egonaldia baino laburragoa. Batez besteko egonaldia bidaiariak gaua igarotzen duten establezimenduetan batez beste ematen duten egun kopuruari dagokio, eta ez Euskal AEn ematen duten egonaldi osoaren iraupenari.

Plazen eta logelen okupazio-mailek urte batetik bestera ehuneko 0,6 eta 1,3 puntu egin dute gora, hurrenez hurren; plazen arabera neurtuta % 50,7an kokatuz eta logelen arabera neurtuta % 56,0n.

Apartamentu turistikoei dagokienez, 2024ko uztailan 26.778 sarrera izan dira guztira; horren ondorioz, 79.955 ostatu-gau izan dira. Zifra horiek aurreko urteko uztailan erregistratutakoekin alderatuz gero, % 9,6 igo dira sarrerak eta % 9,4 ostatu-gauak.

Apartamentu turistiko esaten zaio blokearen edo multzoaren modalitatean kudeatzen duen ustiapeneko enpresa-unitate baten ardurapean eskaintzen den ostatu-unitate bakoitzari. **Ez dira epigrafe honetan sartzen turismo-erabilerako etxebizitzak**, arrazoi turistikoengatik aldi baterako eskaintzen, merkaturatzen edo lagatzen diren etxebizitza partikularrak.

Sarrerak, gualdiak, batez besteko egonaldia eta okupazio graduak Euskal AEko apartamentu turistikoetan. Uztaila 2024

	Sarrerak		Gualdiak		Batez-besteko egonaldia		Betetze-mailak (%)			
	2024/07	m/m-12 (%)	2024/07	m/m-12 (%)	2024/07	2023/07	plazen arabera		apartamenduka	
							2024/07	p.p. *	2024/07	p.p. *
EUSKAL AE	26.778	9,6	79.955	9,4	2,99	2,99	52,4	2,5	62,5	-4,6
Estatukoak	13.632	0,6	41.502	1,2	3,04	3,03	-	-	-	-
Atzerritarrak	13.146	20,9	38.453	19,9	2,93	2,95	-	-	-	-
Araba/Álava	1.393	-30,7	11.608	25,2	8,34	4,62	35,6	7,1	84,3	17,5
Estatukoak	1.032	-33,1	8.119	14,1	7,86	4,61	-	-	-	-
Atzerritarrak	360	-22,9	3.489	61,7	9,68	4,62	-	-	-	-
Bizkaia	15.600	4,9	36.648	4,9	2,35	2,35	55,0	-2,8	64,7	-3,9
Estatukoak	8.166	-2,0	18.922	-3,9	2,32	2,36	-	-	-	-
Atzerritarrak	7.434	13,6	17.726	16,3	2,38	2,33	-	-	-	-
Gipuzkoa	9.785	29,8	31.699	9,7	3,24	3,83	59,6	5,4	52,0	-13,8
Estatukoak	4.434	20,6	14.461	1,7	3,26	3,87	-	-	-	-
Atzerritarrak	5.352	38,5	17.238	17,4	3,22	3,80	-	-	-	-

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajezko puntuko aldea

M/m12 Behatutako azken hilabetean izandako urte arteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta (m-12)

Data 2024ko Abuztuaren 22a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

Euskal AEko apartamentu turistikoetako sarrera guztien % 49,1 eta ostatu-gau guztien % 48,1 atzerriko jatorriko bisitariei dagokie, uztailan % 20,9ko eta % 19,9ko urte arteko igoerak erregistratu ondoren, hurrenez hurren.

Euskal AE osoko apartamentu turistikoetan batez besteko egonaldia 2,99 egunekoa izan da 2024ko uztailan —2023ko uztailan erregistratutakoaren berdina—. Mota horretako establezimenduetan batez besteko egonaldia 8,34 egunekoa izan da Araban, 3,24 egunekoa Gipuzkoan eta 2,35 egunekoa Bizkaian.

Plazen araberako okupazio-maila, Euskal Autonomia Erkidegoan, % 52,4ra iritsi da, hau da, ehuneko 2,5 puntu igo da 2023ko uztailarekin alderatuta. Apartamentuen okupazio-mailak ehuneko 4,6 puntu egin du behera urte artean, eta % 62,5en kokatu da.

Euskal AEko **turismo-aterpetxeei** dagokienez, 2024ko uztailan urtetik urterako sarrerak % 18,6 igo dira, eta 32.526 izan dira guztira, eta horrek, guztira, 67.130 ostatu-gau erregistratzea eragin du. Bizkaian 34.233 ostatu-gau erregistratu dira, 2023ko uztailan baino % 31,3 gehiago, eta Gipuzkoan 31.674, urte artean % 18,1 handitu ondoren. Azkenik, Araban 1.223 ostatu-gau erregistratu dira, aurreko urteko hilabete berean baino % 19,0 gehiago.

Sarrerak, gauldiak, batez besteko egonaldia eta okupazio graduak Euskal AEko aterpetxe turistikoetan. Uztaila 2024

	Sarrerak		Gauldiak		Batez-besteko egonaldia		Betetze-maila plazaka (%)	
	2024/07	m/m-12 (%)	2024/07	m/m-12 (%)	2024/07	2023/07	2024/07	p.p.
EUSKAL AE	32.526	18,6	67.130	24,5	2,06	1,97	61,2	10,4
Estatukoak	10.451	1,8	23.775	-5,8	2,27	2,46	-	-
Atzeritarrak	22.075	28,6	43.355	51,1	1,96	1,67	-	-
Araba/Álava	515	-12,3	1.223	19,0	2,37	1,75	23,6	2,4
Estatukoak	461	-16,7	1.102	11,6	2,39	1,79	-	-
Atzeritarrak	54	56,7	122	199,7	2,23	1,17	-	-
Bizkaia	17.170	24,2	34.233	31,3	1,99	1,89	60,8	12,2
Estatukoak	5.903	7,2	11.886	-2,8	2,01	2,22	-	-
Atzeritarrak	11.266	35,5	22.348	61,5	1,98	1,66	-	-
Gipuzkoa	14.841	14,1	31.674	18,1	2,13	2,06	65,7	9,4
Estatukoak	4.087	-2,7	10.787	-10,2	2,64	2,86	-	-
Atzeritarrak	10.754	22,1	20.886	41,1	1,94	1,68	-	-

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajezko puntuko aldea

M/m12 Behatutako azken hilabeteen izandako urte arteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta (m-12)

Data 2024ko Abuztuaren 22a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

Ostatu mota horretako egonaldien batez besteko iraupena, 2024ko uztailean, 2,06 egunekoa izan da Euskal AE osoan, eta plazen okupazio-maila, urte batetik bestera ehuneko 10,4 puntu igo ondoren, % 61,2ra iritsi da.

Informazio-oharra

ETHren inguruan emandako erantzun-tasa hilabete honetan % **90,4**koa izan da landa-ostatueta, % **78,5**koa turismo-apartamentuetan eta % **66,7**koa turismo-aterpetxeetan. Eustatek eskerrak eman dizkie inkesta honetan parte hartu duten establezimendu guztiei.

Informazio gehiago nahi izanez gero:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
Prentsa-zerbitzua: Tel.: 945 01 75 62